


Emakumeen ugalketa-aparatua eta hilekoaren zikloa kutxa batean



ARG. NORTHWESTERN MEDICINE

Hilekoaren zikloa erreproduzitzen duen miniaturazko ugalketa-aparatu bat aurkeztu dute Northwestern Unibertsitateko ikertzaileek. EVATAR izena jarri diote, eta espero dute baliagarria izatea emakumeen ugalketa-aparatuarekin lotutako asaldurak eta gaitzak ikertzeko eta tratamenduak probatzeko.

Kutxaren barruan, obarioak, umetokia, umetokiko lepoa, bagina eta Falopiorren tronpak daude, elkar konektatuta. Hala, sistema bat osatzen dute, organismoan gertatzen den bezala. Gainera, gibela ere gehitu diote, han metabolizatzen baitira boti-

kak, eta likido berezi batek egiten du odolaren funtzioa.

Hain zuzen ere, ikertzaileek azaldu dute odolaren ordezkoi unibertsala garatzea izan dela zailena. Aldi berean, funtsezko elementua da, haren bidez joaten baitira organo batetik bestera hormonak eta gainerako substantziak.

Dena dela, ikerketa ez da amaitu, azken asmoa paziente bakoitzarentzat berriazko kutxak egitea baita. Horretarako, pazientearen zelula amak erabiliko dituzte; hala, aukera izango dute bakoitzari ondoen egokitzen zaion tratamendua aurkitzeko, orain arte baino modu seguruagoan eta merkeagoan.

Ikertu eta tratatuko dituzten gaitzen artean, beriz, hauek aipatu dituzte: endometriosisa, fibromak, minbizia, ugalkortasun-arazoak... Eta, denborarekin, beste aparatuek ere egin nahi dituzte, organismo osoaren erueda izan arte. *Nature Communications* aldizkarian argitaratu dute [ikerketa osoa](#). ●

Dinosauroen eboluzioari buruzko hipotesi berri bat

Dinosauroen zuhaitz filogenetikoa berregituratu beharke litzakeela proposatu dute Cambridgeko Unibertsitateko eta Londresko Historia Naturalaren Museoko ikertzaileek, [Nature aldizkarian argitaratu duten lan batean](#).

Ia 130 urtez, bi talde handitan sailkatu dira dinosauroak: ornitiskioak eta sauriskioak. Hegaztien erako pelbisa izatea da ornitiskioak elkartzen dituen ezaugarria, eta hor daude, esaterako, *Iguanodon*, *Triceratops* eta *Stegosaurus* dinosauroak. Sauriskioek, beriz, narrastien erako pelbisa dute. Azken horien artean daude teropodoak —hankabiko haragijaleak, *Tyrannosaurus rex*, kasu—, eta sauropodoak —lauhanka-

ko belarjale erraldoiak, *Diplodocus*, kasu—.

Orain, dinosauroen ezaugarri anatomikoen berrazterketa sakon bat egin dute ikertzaileek, 457 ezaugarri kontuan hartuta. Eta ondorioztatu dute teropodoak eta ornitiskioak talde berean elkartu behar litzakeela (Ornithoscelida tal-

dean), 21 ezaugarri berdinean baitituzte. Bestalde, sauriskioen taldean geldituko lirateke herrerasauroak sauropodoekin batera. Teropodoak bezala, hankabiko haragijaleak dira herrerasauroak, eta badituzte antzeko ezaugarri batzuk haiekin; baina, ikertzaileen ustez, bakoitzak bere

aldetik garatutakoak dira ezaugarri horiek.

Dinosauro guztien arbasoak nolakoak ziren ere iradokitzen du eredu berri honek. Oso gai eztabaidatua izan da hori beti, baina azken urteetako ikerketen arabera hankabikoak eta txikian ziren lehen dinosauroak. Bada, hipotesi

berri honek indartu egiten du ideia hori.

Dietari dagokionez beriz, omniboroak zirela ondorioztatu dute. Eta, azkenik, orain arte Gondwanan (hego hemisferioan) sortu zirela jotzen bazen ere, iradoki dute litekeena dela Laurasian (ipar hemisferioan) sortu izana, eta uste baino lehentxeago. ●

